

argazkigintza > argi-itzalak

Harritzea helburu



'Gargola'. Paris.

Iñaki Delgadori lasaitasuna ematen dio gela ilunak; dena ahazteko bide bat da. Eta irudimena baliatzen du, irudiei hitz eginarazteko.

IDOIA ETXEBERRIA

Erizaina da, bi ume txiki ditu, eta zaletasun handi bat: argazkia. Lasaitasuna ematen dio argazkigintzak Iñaki Delgadori: bizitzari beste talaia batetik begiratzeko modua. Onkologia sailean ikusten dituen irudiak eramangarriago egiten zaizkio gela ilunean sartuta. Argi gorria piztuta. «Irratiarekin, edo gustuko musika jarrita». Argi ilunekin jolasean.

90eko hamarkaren hasieran hasi zen argazkiak egiten, Gipuzkoako Argazkilarien Elkartean ikastaro bat egin ostean, Donostian. Eta irudiak egitea bezainbeste gustatu zitzaion laborategiko lana.

■ nortasun aciria

■ **Izena:** Iñaki Delgado.


■ **Jaio:** Legazpin, 1961ean. Donostian bizi da.

■ **Ogibidea:** Erizaina da.

■ **Argazkilaritza:** goeko hamarkadan hasi zen. Zuri-beltza eta gela iluneko lasaitasuna atsegin ditu. Analogikoarekin jarraitu du, digitala ere erabili arren. Gipuzkoako Argazkilarien Elkarteko kidea da.

■ **Sariak eta erakusketak:** Hainbat sari irabazi ditu, hemen eta han. Bakarkako erakusketarik ez du egin.

■ **www.federacionfotovasca.org**



'Kursaala'. Donostia. Bi esposizio, argazki bakarrean.

Usaina, argi urria, bakardade bilatua. «Zuri-beltzeko argazkiak izugarri atsedin ditut. Orain ere nire gogokoenak dira». Kamera digitala ere badu, txiki bat, baina analogikoa erabiltzen jarraitzen du; argazkiak iluntasunean errebelatzen. «Esaten didate ez nagoela egunean, baina berdin dit!», dio barez. Hori da gustatzen zaiona.

Erretratu asko egin izan ditu, eta egiten ditu, baina paisaiak gehiago. Bai hirian bai natur inguruetan. Mendizalea da. «Ez zait natura hila egitea gustatzen». Orain, hurrekin ez du denbora askorik, baina badu asmoa eta gogo argazkigintzari ordu gehiago eskaintzeko. Argia bilatzen du argazkietan; «arratsaldeko eta egunsen-



'Miramar jauregia II'. Polaroid marraztua.



'Gas lantegia'. Polaroid marraztua.

tiko argia. Basoak urre kolorez janzten diren une hori izaten da ederrena.

Errealitatea itxuraldatzeko hainbat teknika daude; giro, itxura berezia emateko. Eta berak ondo ezagutzen ditu: Polaroid-ak marraztea, argazki bakarrean bi esposizio egitea, itzalekin jolastea, argazkiaren zati bat lausotzea... Sor-

menari ateak zabalik uzten dizkio: «Argazkiak harritu egin behar duelako, arreta piztu». Lehiaketetan ere hartzen du parte. Eta erakusketak antolatzekeo ardura du argazki elkartean. Baina berak ez du erakusketarik jarri: «Bakarkakorik ez. Argazki asko ditut, baina oraindik ez nago prest... Gerorako ere utzi behar da zerbait!».



'Urbasa'.